

COVID-19aren INPAKTUA NAFARROAKO KULTURAN:

2020-2021 aldirako jarraipen-adierazliak.

Nafarroako Foru Komunitateko Kultura Zuzendaritza Nagusiak aurkeztu ditu Covid-19ak Nafarroako kulturaren sektorean izan duen eraginaren adierazle nagusiak. Adierazle horiek 2020an eta 2021ean zehar osasun-krisiak Kultur sektorean izan duen eragina erakusten dute, baita 2019an Covid aurreko egoerarekin izan duen aldaketa ere.

Joerak kontsultatu

Informazio iturriak

EMPRESA EHUNA
info +

Kultura enpresak


2021eko urtarrilean, aurreko urtean baino -% 5,2 kultura-enpresa gutxiago zeuden. Eta 2019an baino % 1,8 gehiago.



ENPLGUA
info +

Gizarte Segurantzari afiliatutako pertsonak


2021eko abenduan, % 7,4 pertsona gehiago eman dute alta Gizarte Segurantzari kulturaren sektorean, 2020ko aldi berarekin alderatuta.



FAKTURAZIOA
info +

Enpresen fakturazioa

2021eko laugarren hiruhilekoan, kultura-enpresen fakturazioa % 43,7 handitu zen 2020ko aldi beraren aldean. Hala ere, oraindik milioi erdi euro inguruko distantziara dago 2019ko aldi bereko zifrara iristeko, osasun-krisiaren aurreko garaia.



Enpresa enplegatzaileak eta autonomoak

Enpresa enplegatzaileen kopuruak behera egin du eta langile autonomoenak pixka bat gora. 2021eko abenduan, 2020ko aldi berean baino % 8,5 enpresa gutxiago daude Gizarte Segurantzari altan, eta % 1,1 langile autonomo gehiago.

> Enpresa enplegatzaileak



> Pertsona autonomoak




Kontratuak

2020ko abendutik 2021eko abendura erregistratutako kontratu berrien kopurua zertxobait murriztu da.



Enplegu-erregulazioko espedientearekin dauden besteren konturako langileak*

2021eko azken hilabeteetan bi pertsona bakarrik daude aldi baterako lan-erregulazioko espediente baten eraginpean. 2020ko aldi berean, kopuru hori 207 pertsonakoa zen.



*Oharra: Informazio hau ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueri buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoa eta grabatutako euskarrien erreproduzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazio eta musika-edizioko jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikusizun-jarduerak; eta 91 Liburutegi, artxibo, museo eta beste kultura-jarduerak. Horren arrazoia da iturriak ez duela kulturako beste jarduerak sartzeko adinak desagregazio-mailarik duen informazio eskaintzen.


INFORMAZIOA +



Enpresa enplegatzaileak eta autonomoak


ENPRESA EHUNA

Enpresa enplegatzaileak - Bilakaera



Iturria: Gizarte Segurantzako Afiliazioa. Nastat.

> Pertsona autonomoak - Bilakaera




Iturria: Gizarte Segurantzako afiliazio-estatistikak, Autonomoen Erregimena. Nastat

INFORMAZIOA +



ENPLEGUA

Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonak – Bilakaera



Iturria: Gizarte Segurantzako afiliazio-estatistikak. Nastat


Oharrak: Erregimen Orokorreko eta Autonomoen Erregimeneko afiliatioari buruzko informazio erantsia ematen da.

INFORMAZIOA +



ENPLEGUA

Kontratu kopurua – Bilakaera*



Iturria: enplegu-bulegoetan erregistratutako kontratazioak. Errealitate Sozialaren Behatokia

*Oharra: Informazio hau ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueri buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazio eta musika-edizioko jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak; eta 91 Liburutegien, artxiboen, museoen eta beste kultura-jarduera batzuk. Horren arrazoia da iturriak ez duela kulturako beste jarduera batzuk sartzeko adinako desagregazio-mailarik duen informazio eskaintzen.

INFORMAZIOA +




ENPLEGUA


2021eko laugarren hiruhilekoan sendotu egin da aurreko hiruhilekoetan enplegua berreskuratzeko ikusitako joera. Bestalde, datuen urte arteko aldakuntzak erakusten du Erregimen Orokorreko langileen afiliazioa neurri handiagoan hazi dela Autonomoen Erregimenean baino.

Kultur sektorean Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonak, erregimen motaren arabera. 2020-2021 Bilakaera

Erregimen orokorra




Autonomo erregimena




Aurreko txostenean ikusitako afiliazio-zifren gorakadak jarraitzen du. Sexuaren araberaiko analisiari dagokionez, Gizarte Segurantzako altek antzera egin dute gora emakumeen eta gizonen artean.

Kulturaren sektorean Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonak, sexuaren arabera. 2020-2021 Bilakaera

Emakumeak




Gizonak



Balio guztiak positiboak dira jardueraren guztietan, Artxiboetan eta Dokumentu Ondarean izan ezik (nahiz eta ez den esanguratsua, jardueraren horrek kultur sektoreko afiliazio guztietan duen pisua % 0,1 baita, eta termino absolutuetan erregistratutako galera bi afiliaziokoa baino ez baita), baina 2021eko laugarren hiruhilekoan afiliazioen hazkundea nabarmenagoa izan da 2020ko aldi beraren aldean; horrela, aurreko hiruhilekoan ikusitako goranzko joera finkatu da. Arte eszenikoek, musikak, museoek, bideojokoek/digitalak, ekitaldiek eta erakusketa-azokek hazkundeari eutsi diote, eta hiruhileko honetan ikus-entzunezkoen industria batu zaie, afiliazioak gehitzen hasi baita.

Kulturaren sektorean Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonak, jardueraren arabera. 2020-2021 Bilakaera



Iturria: Gizarte Segurantzako afiliazio-estatistikak. Nastat

INFORMAZIOA +



ENPLEGUA


2021eko laugarren hiruhilekoan eutsi egin zaio kontratu berrien goranzko joerari emakumeen kasuan, aurreko urteko aldi beraren aldean, baina gizonen kasuan beherakada ikusten da, hilabete batzuetako hazkunderen ondoren.

Kultura-sektorean erregistratutako kontratuak, sexuaren arabera. 2020-2021 Bilakaera

Emakumeak




Gizonak




Termino absolutuetan eta ehunekoetan 2021eko laugarren hiruhilekoan kontratu mugagabe baino aldi baterako kontratu gehiago sinatzen diren arren aurreko urteko aldi beraren aldean, kontratu mugagabeek gora egin dute aldi baterako kontratuen beherakadaren aurrean.

Kultur sektorean erregistratutako kontratuak, kontratu motaren arabera. 2020-2021 Bilakaera

Mugagabea




Aldizkakoa



Kopuru absolututan, lanaldi osoko kontratuak lanaldi partzialekoak baino gehiago igo dira 2021eko laugarren hiruhilekoan, 2020ko aldi beraren aldean. Ehunekotan, lanaldi partzialeko kontratuak gehiago igo dira kopuruetan. Joera goranzkoa da kasu guztietan.

Kultur sektorean erregistratutako kontratuak, lanaldi motaren arabera. 2020-2021 Bilakaera


Osoa



Lanaldi partziala



Aldizkako kontratu finkoa




Iturria: Enplegu-bulegoetan erregistratutako kontratazioak. Errealitate Sozialaren Behatokia.

INFORMAZIOA +



Sortutako BEZaren zerga-oinarria- Bilakaera
FAKTURAZIOA



Iturria: aitortzaileek sortutako BEZaren zerga-oinarriak EJZ epigrafeetan 301, 302, 303 taldeak. Nafarroako Foru Ogasuna.



JOERA nagusiak

1. joera

Kulturako enplegu autonomoaren bolumenak pandemiaren aurreko maila gainditzen du, besteren konturako enplegatuak dituzten enpresen kopurua zertxobait txikiagoa den arren.

2021eko laugarren hiruhilekoak aurreko hiruhilekoetan ikusitako suspertze-bidea berresten du, bai langile autonomoen kopuruan, bai enpresa enplegataileen kopuruan. Aldi osoan zehar kultur arloko kontsumoak eta jarduerak bere horretan jarraitu dute, nahiz eta Covid olatuak izan bata bestearen atzetik, neurri batean sektoreari laguntzeko neurriei eta herritarren artean txertaketa-kanpainari esker.

2019-2020 begirada

Enpresen bolumenean unerik kritikoenak 2020ko maiatzean gertatu ziren, konfinamenduaren hondamenean isla, eta baita 2021eko urtarilean ere, gabonetan erregistratutako kasuen gorakadaren ondoren, covid kontrako neurriak muturreraino eramanez, eta horrek edukiera, ordutegi, mugikortasun eta abarretan dakartzan mugekin. 2021a, 2020ko martxoan, (pandemiaren hasiera) zenbatutakoa baino enpresa-bolumen pixka bat handiagoarekin bukatu zen (+% 1,1), baina 2019ko abenduan erregistratutakoa baino pixka bat txikiagoarekin ere (-% 2,1).

Langile autonomoen kasuan, 2020ko maiatza eta ekaina ere aldi zailena izan zen, afiliazio-bolumenean baliorik txikiak erregistratuz. Hala ere, enpresetan ez bezala, denboran zehar bilakaera irregularragoa izan bada ere, joera goranzkoa izan da eta krisiaren aurretik erregistratutako zifrak ere gainditu dira (+% 4 2019ko abenduarekin alderatuta/+% 6,4 2020ko martxoarekin alderatuta).

Enpresa enplegataileak 2021 abendua * ■

Erregimen autonomoko afiliatuak 2021 abendua ■

Denbora-alderaketa	Zifra absolutuak. Kotizazio kontuak		Denbora-alderaketa	Zifra absolutuak. Afiliazioak	
2020ko abenduarekin alderatuta	+%1,9	371	2020ko abenduarekin alderatuta	+%3,6	1.407
2020ko martxoarekin alderatuta	+%1,1	374	2020ko martxoarekin alderatuta	+%6,4	1.369
2021 Abendua	378	--	2021 Abendua	1.457	--

* Oharra: ez dira kontuan hartu zero enpleguko kotizazio-kontuak.



JOERA nagusiak

2. joera:

Aldi baterako lan-erregulazioko egoeran dauden pertsonen kopuruak gutxieneko balioa lortu du eta kultura-enpleguak pandemiaren aurreko maila gainditu du. Aldi baterako lan-erregulazioen eraginpean zeuden ia langile guztiak utzi dute egoera hori aldi horretan¹, Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen kopuruak goranzko joerari eusten dion bitartean.

2019-2020 begirada

2020ko maiatzetik 2021eko martxora bitartean erregistratu ziren Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean afiliatutako pertsonen kopururik txikiak; aldi hori bat dator konfinamenduaren, ondorengo deseskalatzearen eta infekzio-olatu berrien garaiarekin. Hala ere, ordutik aurrera, goranzko kurba erregistratu da, pandemiaren aurreko balioak nabarmen gaindituz (+%4,6 2019ko abenduarekin alderatuta / +%9,2 2020ko martxoarekin alderatuta).

Enpleguari buruzko atalarekin amaitzeko, nabarmentzekoa da aldi baterako lan-erregulazioak eragindako pertsonen kopuruaren bilakaera positiboa, konfinamenduko hilabeteetan balio gorenra lortu baitzuen, eta 2021aren hasieratik beheranzko joera izan baitu.

Enplegu-erregulazioko espedienteak eragindako kultura-jardueretan besteren kontura diharduten langileak (%) - Bilakaera

Denbora-alderaketa	Urte arteko tasa	Kopuru absolutuak
2020 Apirila (ERTEak hasi zirenean)	--	333
2020 Abendua	-%37,8	207
2021 Abendua	-%99,0	2

Gizarte-segurantzako afiliatuak kultura-jardueretan (Erregimen orokorra eta autonomoen erregimena) – Bilakaera

Denbora-alderaketa	Urte arteko ald.	Kopuru absolutuak
2020ko abendua rekin alderatuta	+%7,4	4.435
2020ko martxoarekin alderatuta	+%9,2	4.363
2021 Abendua	4.764	--

1. Informazio hau ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueri buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazioko eta musika-edizioko jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak; eta 91 Liburutegien, artxiboen, museoen eta beste kultura-jarduera batzuk. Horren arrazoia da iturriak ez duela kulturako beste jarduera batzuk sartzeko adinako desagregazio-mailarik duen informaziorik eskaintzen.



JOERA nagusiak

3. joera:

Kontratazio-bolumena pandemiaren aurreko mailetatik oso urrun dago oraindik.

Kultura-arloko enpleguaren ezaugarri nagusia behin-behinekotasun handia bada ere, datuek erakusten dute 2021eko laugarren hiruhilekoan zertxobait handitu dela kontratazio mugagabearen ehunekoa, aurreko urteko aldi beraren aldean. Gainera, 2021eko azken hiruhilekoan aldea murrizten jarraitzen da covid aurreko aldiko denbora-epe berean lortutako kontratazio-kopuruekiko.

2019-2020 begirada

Erregistratutako kontratu berriei dagokienez, aztertutako jardueretan beherakada oso nabarmena izan da konfinamenduaren hiruhilekoan. Hortik aurrera, kontratazioa pixkanaka suspertzen hasi da, eta 2021eko laugarren hiruhilekoa % 12,2ko jaitsierarekin itxi zen 2019ko aldi berarekin alderatuta; horrek goranzko joera ekarri du, kontuan hartuta jakinarazitako kontratuak 2019an baino % 42,7 gutxiago izan zirela urteko zenbaketa orokorrean.

Kontratuen behin-behinekotasuna Kultur sektorean*

Kontratu mota	4hh 2020	4hh 2021
Mugagabea	%1,4	%4,6
<i>z.a.</i>	28	87
Aldi baterakoa	%98,6	%95,4
<i>z.a.</i>	1.922	1.799

Erregistratutako kontratu berrien urtetik urterako bilakaera*

Denbora-alderaketa	Urte arteko ald.	Zifra absolutua
2020ko abenduarekin alderatuta	-% 37,1	887
2020ko abenduarekin alderatuta	-% 3,8	580
2021 Abendua	558	--

*Oharra: Informazio hau ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueren buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoa eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazio eta musika-edizioko jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak; eta 91 Liburutegien, artxiboen, museoen eta beste kultura-jardueren batzuk. Horren arrazoia da iturriak ez duela kulturako beste jardueren batzuk sartzeko adinako desagregazio-mailarik duen informaziorik eskaintzen.



JOERA nagusiak

4. joera:

Enpresen fakturazioa pandemiaren aurretik erregistratutakoa baino % 20 txikiagoa da oraindik. 2021eko laugarren hiruhilekoan, gora egiten jarraitzen du kulturaren sektoreko enpresen fakturazioak, eta aurreko hilabeteetan sektorearen susperraldi ekonomikorako ikusitako joera sendotzen da, nahiz eta oraindik ez diren iristen covid aurreko garaian fakturatu ziren bi milioi euro baino gehixeagora, nahiz eta distantzia laburtuz doan.

2019-2020 begirada

2019ko azken hiruhilekoaren eta 2020ko bigarren hiruhilekoaren artean enpresen fakturazioa % 75 jaitsi ondoren (konfinamendua, neurri murriztaileak, etab.), kopuruak pixkanaka berreskuratzen hasi dira, baina 2021eko lehen hiruhilekoan beste beherakada bat izango dute (% 57,4koa 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta). Hala ere, joera goranzkoa da, eta 2021a 2020ko aldi berean (laugarren hiruhilekoa) lortutako balioak gaindituta itxiko da, baina 2019ko laugarren hiruhilekoan erregistratutako maila baino % 20 inguru beherago.

Kultura-ekintzaren eremuan sailkatutako enpresek sortutako BEZaren aitortpenaren hiruhileko arteko bilakaera

1hh 2020	2hh 2020	3hh 2020	4hh 2020	1hh 2021	2hh 2021	3hh 2021	4hh 2021
-% 35,6	-% 61,0	% 19,5	% 83,8	-% 57,4	% 91,1	% 29,9	% 35,9
1.422.247€	555.065€	663.393€	1.219.295€	519.472€	992.633€	1.289.505€	1.751.888€

Kultura-ekintzaren arloan sailkatutako enpresek sortutako BEZaren aitortpenaren urte arteko bilak

Hiruhilekoak	Urte arteko alderaketa 2021eko 4. hiruhilekoarekiko	Kopuru absolutuak
4. hiruhil. 2019	-20,6%	2.207.026€
4. hiruhil. 2020	+43,7%	1.219.295€
4. hiruhil. 2021	--	1.751.888€



Covid-19ak Nafarroako kulturaren sektorean izandako inpaktuaren jarraipen-adierazleak osatzeko, honako iturri hauetatik lortu da informazioa:

ENPRESA EHUNA

- » Kulturaren sektoreko enpresen kopurua Nafarroan. Nafarroako Enpresen Direktorioa 2021eko urtarrilaren 1ean. Nastat.

Oharra: informazio hori urtero eguneratzen da erreferentziako urteko urtarrilaren 1ean, eta uztailean argitaratzen da. Beraz, 2022ko uztailean argitaratuko da 2022ko urtarrilaren 1eko datua.

- » Nafarroako Kulturaren sektorean Gizarte Segurantzari alta emanda dauden kotizazio-kontuen kopurua. 2019ko, 2020ko eta 2021eko informazioa. Nastat.

Oharra: informazio honek hileko azken egunean erregistratutako kotizazio-kontuei buruzko datuak ematen ditu.

FAKTURAZIOA

- » Aitortzaileek sortutako BEZaren zerga-oinarriak EJZ epigrafeetan 301, 302, 303 taldeak. 2019, 2020 eta 2021eko hiruhelekoak Nafarroako Foru Ogasuna.

Oharra: Nafarroako Foru Ogasunak emandako BEZaren datuek aukera ematen dute sortutako BEZaren oinarrien fakturaziora hurbiltzeko. Azterlan honetarako, kultura-jardueratzat hartu dira 3. Atalean (EJZ epigrafeen egiturako jarduerak artistikoak) sartutakoak, zehazki 301, 302 eta 303 taldeetako jarduerak (ikus xehetasun gehiago eranskinean).

ENPLEGUA

- » Nafarroako Kulturaren sektoreko langileen afiliazio-kopurua Gizarte Segurantzari. 2019ko, 2020ko eta 2021eko informazioa. Nastat.

Oharra: informazio honek hileko azken egunean erregistratutako afiliazioei (Erregimen Orokorra eta Autonomoak) buruzko datuak eskaintzen ditu.

- » Enplegu-bulegoetan erregistratutako kontratazioak. Hilabete bakoitzeko informazio metatua, 2019, 2020 eta 2021eko abendura artekoa. Errealitate Sozialaren Behatokia.

Oharra: kontratuei buruzko informazioa ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueren buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoa eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazio eta musika-edizio jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak; eta 91 Liburutegien, artxiboen, museoen eta beste kultura-jarduerak batzuk. Horren arrazoia da iturriak ez duela kulturako beste jarduerak batzuk sartzeko adinako desagregazio-mailarik duen informaziorik eskaintzen.

ENPLEGUA ALDI BATERAKO ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

- » Lan-jarduna eteteko edo murrizteko administrazio-egoera duten demandak, bitartekaritza mugatua dutenak. 2020ko martxotik 2021eko abendura bitarteko hileko informazioa. Errealitate Sozialaren Behatokia.

Oharra: ERTE egoeran dauden eskatzaileei buruzko informazioa ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueren buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoa eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazio eta musika-edizio jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak; eta 91 Liburutegien, artxiboen, museoen eta beste kultura-jarduerak batzuk. Horren arrazoia da iturriak ez duela kulturako beste jarduerak batzuk sartzeko adinako desagregazio-mailarik duen informaziorik eskaintzen.



KULTURAREN SEKTOREKO JARDUERAK

» Azterketa honen ondorioetarako, honako kultura-jarduera hauek hartu dira kontuan:

Ekonomia Jardueraren Sailkapen Nazionala

Kodea CNAE	Izenburua CNAE
9106	Agiritegien jarduerak
9105	Liburutegien jarduerak
9102	Museoetako jarduerak
9103	Toki eta eraikin historikoen kudeaketa
9001	Arte eszenikoak
9002	Arte eszenikoen jarduera lagungarriak
900	Sormen, arte eta ekitaldi jarduerak
9004	Ekitaldi aretoen kudeaketa
9003	Sorkuntza artistikoa eta lietarioa
742	Argazkilaritzako jarduerak
7420	Argazkilaritzako jarduerak
59	Zinemako, bideo eta telebista saioretako jarduerak, soinu grabazioak eta musika edizioak
591	Zinemako, bideo eta telebista saioretako jarduerak
4763	Musika eta bideo grabazioen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan
5912	Zinemako, bideo eta telebista saioretako produkzio ondoko jarduerak
5914	Zinema erakusteko jarduerak
5915	Zinema eta bideo produkzio jarduerak
5916	Telebista saioretako produkzio jarduerak
5917	Zinema eta bideoa banatzeko jarduerak
5918	Telebista saiok banatzeko jarduerak
7722	Bideo zinten eta diskoen alokairua
181	Arte grafikoak eta horiekin zerikusia duten Zerbitzuak
1811	Egunkariak inprimatzea
1812	Inprimaketako eta arte grafikoetako beste jarduera batzuk
1813	Aurreinprimaketako eta euskarriak prestatzeko zerbitzuak
1814	Koadernaketa eta horrekin zerikusia duten zerbitzuak
4761	Liburuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan
5811	Liburuen argitalpena
182	Grabatutako euskarrien erreprodukzioa
592	Soinua grabatzeko eta musika editatzeko jarduerak
1820	Grabatutako euskarrien erreprodukzioa
5920	Soinua grabatzeko eta musika editatzeko jarduerak
582	Informatikako programen argitalpena
5821	Bideojokoen argitalpena
5829	Informatikako beste programa batzuen argitalpena
6201	Informatikako programazioko jarduerak
6202	Informatikako aholkularitzako jarduera
6312	Web atariak
8230	Konbentzioen eta erakustazoken antolaketa



KULTURAREN SEKTOREKO JARDUERAK

3. ataleko EGZ epigrafeak: Arte jarduerak

01. multzoa. Zinemarekin, antzerkiarekin eta zirkuarekin lotutako jarduerak.

- 011 TALDEA. ZINEMA ETA ANTZERKIKO ZUZENDARIAK.
- 012. TALDEA. ZUZENDARITZA-LAGUNTAILEAK.
- 013 TALDEA. ZINEMA ETA ANTZERKIKO AKTOREAK.
- 014. TALDEA. ESTRA ESPEZIALIZATUAK, BIKOITZAK, KONPARTSAK ETA MEREZIMENDUZKOAK.
- 015. TALDEA. ZINEMA-, TELEBISTA- ETA BIDEO-KAMEREN OPERADOREAK.
- 016. TALDEA. UMORISTAK, KARIKATUAK, ESZENTRIKOAK, TXARLISTAK, ERREZITATZAILEAK, ILUSIONISTAK, ETAB.
- 017 TALDEA. AZALTZAILEAK ETA ERREJIDOREAK.
- 018 TALDEA. ZIRKUKO ARTISTAK.
- 019. TALDEA. ZINEMAREKIN, ANTZERKIAREKIN ETA ZIRKUAREKIN LOTUTAKO BESTE JARDUERA BATZUK, B.I.S.G.

02. multzoa. Dantzarekin lotutako jarduerak.

- 022 TALDEA. DANTZARIAK.
- 029. TALDEA. DANTZAREKIN LOTUTAKO BESTE JARDUERA BATZUK, B.I.S.G.

03. multzoa. Musikarekin lotutako jarduerak.

- 031 TALDEA. MUSIKA-MAISUAK ETA -ZUZENDARIAK.
- 032. TALDEA. INSTRUMENTUEN INTERPRETEAK.
- 033 TALDEA. ABESLARIAK.
- 039. TALDEA. MUSIKAREKIN LOTUTAKO BESTE JARDUERA BATZUK, B.I.S.G.